

# BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

## 1448

*61/2017 DEKRETUA, martxoaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Bake Epaitegietako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.*

2011ko uztailaren 26ko 179/2011 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Bake Epaitegietako lanpostuen zerrendak onartu ziren. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da.

Lanpostuen zerrendak Justizia Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko ebazpena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

Ondorioz, Lan eta Justiziako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2017ko martxoaren 14an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartzea Lasarte-Oriako Bake Epaitegiari dagozkion lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean daude jasota.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Dekretu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren 14an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lan eta Justiziako sailburua,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

## MARTXOAREN 14KO 61/2017 DEKRETUAREN ERANSKINA

## ALDAKETEN ZERRENDA

## GIPUZKOA

Aldaketa-mota: Aldaketa

Saila: Lana eta Justizia

Kudeaketa atala: Justizia Administrazio Zuzendaritza

Destino Zentroa: Lasarte-Oriako Bake Epaitegia

Udalerria: Lasarte-Oria

Aldaketa mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Udalerria	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berriazko ezagutza	H.E.	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berriazko osagarria	Oharrak
Aldaketa	480007	15	Kudetzaile Prozesal eta Admin. Bake Idaz	B	Lasarte-Oria	LB	B	Prozesu eta Administrazio Kudeaketa	Diplomatura		3	2015/01		3.544,929	9.252,72	